

UNAMUNO ERAGILE

Txillardegi

Beldurtuta egoteko bezalakoa da hartu dudana gaia: Unamunoren eragile. Zertaz hitz egin nik, eta Unamunori buruz. Unamunoren eta gaur, kondemnatu berria delarik. Hau gaia nirea!

Eta hala ere, hemen nauzue ni, gertu. Unamunoren eragileak berak eraginda. Hitz egin egingo luke berak nire egoeran, eta horixe egingo nik.

Eta euskaldunberriekiko Unamunoren bezain eragile banintz ni, pozik geldituko nintzateke.

Ea, bada, euskaldunberriok ausartzen zareten. Eta berdinez esaten dizuet gazte guztioi.

Eta nire arloan bete-betean sartu baino lehenago, gauza bat esan behar Unamunoren euskaldunaz. Bestela, huts handi bat egingo nuke; eta aipatu beharrean nago. Badakizue dagoeneko nondik nora noan: euskara gorroto izan zuen Unamunok. Bai jaunak; gorroto da hitza, asko estutzen bagaitu ere euskaldun handi batek hala jokatu zuela aitortu beharrak.

Eta berak zuen kategoria izanda, bi aldetatik galdu genuen euskaltzaleok: geure hizkuntzaren alde egin zezakeena egin ez zuelako batetik; eta euskararen aurka egin zituen ahaleginak bestetik. Idazle bikaina izan zenak ez zigun euskaraz ezer utzi,

olerkitxo batzuk baizik. Unamuno galdu genuen euskararentzat, Baroja galdu dugun bezala; eta erdaraz egin zuen lanari begirata, mina dugu bihotzean geure hizkuntzaren beherakada sentitzen dugunok. Nahi izan balu, zer ez zuen egingo bilbotar ospetsuak? Erdal literatura landu eta aberatsean bera den bezain aipagarria izanik, zer mailatakoa izango zen geurean? Piztu egin zezakeen Unamunok geure hizkera, eta ez zuen halere deus egin bere alde; asko ordea zanpatzeko. Orduko euskara ez zen gauza jakintzako gaiez iharduteko: eta hau zela-eta, euskara gaitu eta eraberritu beharrean, baztertu egin zuen.

Ez zen, ez, ixildu. Bere eragin eta indar guztiez idatzi zuen euskararen kontra; bere lan guztietan sakabanatuta ditugu iski-riok eta irainak. Eta bere jarraitzaile asko bide galgarri honetatik abiarazi zituela, nola ukatu? Kalte egin zigun beraz bere jokatideak; baina kalte handiagoa utzi digute euskarari buruzko bere lanek, euskal idazle asko okertu baitituzte.

Hau guztia tristeia izanda ere, tristeagoa zaigu gaztetako bere jokaera jakitean.

Unamuno Bilbon jaio zenean euskaraz ez zen han pitin pat baizik mintzatzen. Aro hartan banaka batzuk kenduta gainerako guztiak erdaldunak ziren; baita gure Unamuno ere.

Eta zer egin zuen? Euskaraz ikasi. Euskaldunberria dugu bada, Unamuno. Eta edozein hizkuntza ikasi duenak ondo daki hartarako behar den adorea.

Euskara maite izan zuen Unamunok, berak liburuetan esaten duen bezala. *Milla Euskal Olerki Eder* liburuan agertu da bere lanen bat. Ez nuke nik esango oso ona denik, ez; baina euskaldunberri batek eginak dira, eta gauza bat erakusten dutelako aipatzen ditut hemen: euskara maite izan zuela hain zuzen.

Ez hori bakarrik. Gehiago ere egin zuen Unamunok: euskaraz jabetu zen, eta Bizkaiko Diputazioko Euskal Katedra eskaini zenean, Unamuno joan zen azterketara. Eta irabazi ez zuela jakiteak ez du ezer adierazten, Azkuek kendu baitzion delakoa.

Unamuno, bada, euskaltzale izan zen gaztetan. Eta nola aldatu zen gero hainbestearaino? Ez dakit nik osotoro. Baina zio bat aipatu beharra dago. Madrilera joan behar izan zuen karrera ikastera, eta egonaldi honek eragin zion ez gutxi, hark berak aitortzen zuen bezala. Kanpora aldegin behar izan zuelako, eta hau, egia esan, hemen Unibertsitaterik ez genuelako gertatu zen. Lortuko ahal dugu aurki!

Eta Unamuno euskaldunaz ohar hori esanda, igaro gaitezen Unamuno eragilearengana. Hots, goazen harira.

Denok dakizue noski, Unamunoren bi libururekin gertatu dena: irakurri ezin daitezkeen liburuetakoko “Indize”an sartu ditzutela. Nola hori?

Harritu egin dira asko. Indizean Unamuno! Beharbada hemengo batzuek ez zenekiten; baina orain dela urte gutxi istilu gorria sortu zen Unamunori buruz. Santu egin nahi zuten Unamunozaleek, eta artikulua ere idatzi ziren erruz hau lortzeko. Beren ustez, erlijiozko kezka larria izan zuen Unamunok, santuek izan zuten bezain bizia, eta bere santutasuna ospa zedila eskatzen zuten.

Orain, berriz, hereseen zerrendan sartuta, zer pentsatuko? Nola uler daiteke aurkakotasun hau?

Baina Unamunoren liburuak ezagutzen zituena, ez da harritu. Iritzi eta aburu guztiak aurki daitezke haietan; une batean gauza baten alde badago, kontra jarri da geroxeago.

Hauxe esaten zioten sarri bere kontra zeuden askok: artikulua batean edozein joera defenditu ondoren, aurka jartzen zela hurrengoan. Unamunok halere, ez zuen horretaz jaramon handirik egin, ez baitzitzaion ardura bere buruaren aurka bet-betan bihurtzea.

Honengatik, bere idazlana zatika aztertzen bada, esaldika esaterako, eroren batena ematen du. Ez bide dago harengan jorarik. Baina erabat hartuta, garbi nabarmentzen da heriotzaren larrimin etsia duela haritzat.

Une batean santu dirudi; eta ondorengoan, edozertarako segurantza ezabatua duela, biraoa dario.

Ukatu egiten da askotan.

Gainerantzean, izaeraz zetorkion nonbait joera hau. Baina finkatu egin zen gero bere pentsaeragatik. Paradoxa maite zuen, eta hau zitzaion argi-iturri bakarra: “Ohi denez nabarmendu ez den egia bat agertzen du paradoxak”, esan ohi zuen. Eta beste batean: “Zentzu onaren lelokeriak eta txepelkeriak sendatzeko, paradoxa bezalako sendagairik ez dago”.

Kierkegaarden eragina agertzen zuen honetan. Eta horrela, bere aiurria eta pentsaera egokiturik, finkatu egin zen Unamuno logika gutxikoa, eta bere kontradikzio edo aurkakotasunak ugaritu.

Halere, ezin uka, heresea dugu Unamuno. *Bizitzaren sentimendu tragikoaz* liburuan garbi agertzen da bere okerra: egia aurkitzeko ahalmena ukatzen dio pentsamenari, eta sentimen hutsaren bidetik abiatzen da. Hau modernismo hutsa da, eta heresia hau elizak bereziki ezetsi (1907) zuenez gero, ez nau bate-re harritu Unamuno bera ezesteak.

Unamuno heresea dugun aldetik, bada, “Indize”an sartzea ez da harriztekoa. Baina, esan dugu lehen, toki batzuetan kristau zintzo dirudi Unamunok, kezka bizia erakusten du denean, eta hauxe da noski bera santu egiteko bide eman zuena.

Hau dela-eta, Unamunok hain bereziki maite zuena aurkitzen da bere nortasunean: paradoxa bat. Bere buruaren aurka dagoela pentsa liteke. Sarri zioen berak: “Unamunozaleen partidu bat sortzen bada, neu izango naiz bere lehendabiziko etsaia”. Mundu guztiaren kontra zegoen, beti ari zen aldatzen, eta honegatik aurki daiteke bere lanetan gauza berari buruz alde eta aurka, goraka eta beheraka.

Kierkegaard aipatu dut lehen, eta bere “anaia Kierkegaard” berriz aipatu beharrean nago. Honengatixe ikasi zuen danieraz, eta gutxik bezala bere “anaia” horren filosofia ezagutu. Exis-

tentzialismoa zer zen inork ez zekielarik, Danimarkako hizkuntza ikasi zuen Unamunok, hark eraginda, eta aurrenik ezaguturazi zigun gero famatua izango zen Soren Kierkegaard. Bai jaunak: existentzialista goiztiarra dugu Unamuno, existentzialista aparta, primerakoa. Aita Sciaccak hari buruz esan zuena gogoraziko dizuet: “Unamuno eta Kierkegaard dira existentzialismoaren aitzindariak”.

Halere, Unamunok ez zuen bizar zikin narratsik, ez eta horrelako itxurarik. Ez uste izan... Egiatzko existentzialista dugu. Eta egiatzko existentzialismo hau igaro ez baina geure giharra dela uste dut nik. Honengatik bizirik dago gudan Unamuno, eta bizirik diraelako sartu dituzte “Indize”an bere *Bizitzaren sentimendu tragikoaz* eta *Kristautasunaren agonia*. Oraindik asko irakurtzen direlako, oraindik ere eragin handia izan dezaketelako.

Zirikatu egin nahi zuen aurretik Unamunok, gero pentsarazteko; eta honengatik ari da etengabe irakurlea zula eta zula. Hark berak zioen: “Jendea su eta gar jartzea kontzientziaren betebeharra izan daiteke”. Eta “erein egin behar dira gizonarengan zalantza-bihiak, kezka-minak, baita etsipenekoak ere —Bai noski! Zergatik ez? Etsipenekoak ere bai!— eta hori dela-eta, zoriona esaten dena galtzen bada (eta zoriona inondik ere ez dena, noski) ez da ezer galdu”.

Kezkatu egin nahi du. Eta, berak zuen luma trebea izanda, gehienetan inguratzen du. Julián Maríasen ustez “egundoko eragina du zirikatzen”; eta beste batean esan du bi zatitan zatitu daitezkeela Espainiako gazteak: Unamunori irakurri diotenak, eta Unamunorenik ezer irakurri ez dutenak. Eta egia da, nire ustez behinik behin.

Nazka ematen dio Unamunori, kezkak eta gertaerak solasgaitzat hartzeak. “Munduan gertatzen den ia guztia hizketa-gaia besterik ez da askorentzako”.

Unamunorentzat, ordea, kezkabide gogorra da dena, eta larriminik gabe nola bizi daitekeen ez du ulertzen. Zertarako gau-

de munduan? Zertarako jaio gara? Zertarako? Pentsa egin deza-kegu, mina sentitzen dugu, zorion-egarriak zulatzen gaitu, eta galdetzen du: “Zer dela-eta? Zerbait adierazten du honek guztiak?”. Bost axola zaio Unamunori “jakitea” bera: gizona zertarako den ez badakigu, ez dakigu ezer. Gizonarena ez beste denak sasi-jakintzak dira berarentzat: “Izpiritua hazitzeko... Ez! ‘Jakiteko jakin! Egiagatik egia!’ Hori ez da gizonezkoa”. Eta geroxeago: “Zertarako bat bilatu behar”. Hau zen beti zerabilen galdera.

Jakite hutsak, esan dugu, higuin ematen dio. Orobat ere metafisikak; eta honetan Giderekin bat dator. Gizonaren zuzia argitu nahi du, ez besterik. Besteak ez dira, izan ere, benetako auziak. “Nondik nator ni? Bizi naizen mundua nondik dator? Hazi nauen mundua nondik? Eta, nora noa ni? Inguratzen nauen guztia nora ote? Zer adierazten du honek? Elikatzeko bere behar aberekoietatik jareginda, hauek dira gizonaren galderak. Eta, ondo begiratuki, galdera horien muinean, gogo handiagoa ikusiko dugu ‘zertarakoa’ ezagutzeko, ‘zergatik’ bat jakiteko baino. Ez dugu karia behar, xedea baizik”.

Gizonaren betekizunak larritzen du Unamuno, eta gizonari dagokion eran argitu nahi du. “Hezur-haragizko gizona da filosofoa, eta bera bezalako hezur-haragizko gizonei aihertzen da. Nolanahi ere, borondateaz filosofatzen du, sentimenaz, hezur-haragiaz, arima eta gorputz osoaz, eta ez gogamenaz bakarrik.

Gizontasuna dario Unamunori, berak erdaraz “hombredad” esango lukeena. Gizona da albo guztietatik, gizonak sentitzen dituen kezka bide eta katramilak dira bere izkribuetako mamia, eta gizontasun horrexek hunkitzen gaitu. Benitez de Castroren ustez, “Europak ez du izan ehun urtetan Unamuno bezalako gizonik”.

Gizon osoa dugu. Horregatik kezkatu. Kezkak eragiten dio: kezkatan dabil, kezkatan bizi da, kezka gorrian hiltzen da, kezka baten ildo da bere bizitza.

Badaki Unamunok heriotzak mugatzen duela; eta hil behar-
rak astintzen du. Eta Salamancako zelai baketsu zabaletara jo-
aten denean, heriotzaz pentsatzen du, heriotzaren ideia dauka
lagun, baina alferrik bilatzen du ostertzean. Noizbait bukatu be-
har, beharbada Argia aurkitzeke amaitu behar... Beti bizi nahi
du, beti bizi behar du. Noiznahi betiko hil daitekeelako zalan-
tzak larrimin betean dauka. “Ni mamitzen nauen gorputz hau
hilda —neure buruarekin ez nahasteko ‘nirea’ deitzen dudan
horixe— ezerezera bihurtzen banaiz, eta nire anaia guztiei hala-
ber gertatzen bazaie berearekin, mamu-ilara beltza besterik ez
da gure giza leinu hau, eta ezerezetik ezerezera goaz”. Eta, bes-
te batean: “Mendi bare berdea begiestean, edo nire arimaren
beste ahizpa bat begi argietatik so egiten duela ikustean, biho-
tza zabaltzen zait, arimaren taupada sentitzen dut; baina, bere-
halaxe, ezkutuaren ahotsak susmur: ‘Akabatu egingo haiz’, eta
heriotzaren aingeruak hegoaz ikutzen nau”.

Ez dauka lasaitzerik. Bilaka hasten da, eta ez du aurkitzen,
gogamenak ez dio laguntzen, ez baitu honek hildakoez besterik
ulertzen. Eta gizonak bizi nahi duenez gero, nola lagundu die-
zaioke pentsamenak? “Hila bilatzen du pentsamenak, biziak
ihes egiten dio-eta...” “Zerbait ulertzeko, hil egin behar du au-
rrenik, pentsamenean gogortu behar du”.

Nola urratuko ba buruak gizonaren auzia? Bizitzaren etsai
amorratua da pentsamena, eta heriotza behar du. Horregatik,
bere bideetan aurrera sartuta zer aurkitzen du Unamunok? Itxa-
rokizunik ez dagoela. “Gogamenak, gizonaren pentsamenak,
bere neurrian eta eran bada ere, arima hilezkorra denik ez du
frogatzen, ezta denboran zehar kontzientzia edo oharmena hon-
daezina denik ere: kontzientzia honek gorputzeko heriotzaren
ondoan irauterik ez daukala baizik. Beti, esana dut, bere neu-
rrian”.

Etsipen gorriak inarrostean du bada: “Gauza edozein tokitik
ikusita, beti jartzen da burua gure hilezkortasun irrikaren aurka

eta ukatu egiten digu. Izan ere, bizitzaren arerioa da-eta pentsamena”.

Horra auzia: ez hiltzeko esaten dio bihotzak gau eta egun, baina ez dakusa biderik. Eta honetaraz gero, larriminetik irteteko heresiaren bidetik egiten du: “Fedea ez da pentsamenetik datorren gauza, nahimenetikoa baizik (geure borondatek datorrena baizik). Sinistu nahi izatea da sinistea, eta Jainkoa sinistu batez ere, eta guztiaren gainetik, Jainkoa izan dadila nahi izatea. Horrela, arimaren hilezkortasuna sinistea, hilezkor dadila nahi izatea da; alabaina, hain gogor nahi izan behar da, pentsamena zanpatu eta bere gainetik pasa behar duela nahi honek”.

Eta zergatik hau guztia?

Biziak eskatzen duelako, bihotz irrikak eskatzen duelako; eta eskatze hau da biziaren mamia, eta ez arrazoa edo pentsamena. “Zuk, Spinozak, eta hirurok ez dugu behin ere hil nahi, eta behin ere ez hiltzeko irritis haxe da gaurko gure izana”. Baztertu egiten du arrazoa, eta ezertarako balio ez duela esaten du behin eta berriz. Jainkoarenganaino iristeko gauza ez da, bere ustez. Hona heresia. Halere, iritzi honek ez du betiko lasaitzen.

Baina bere arima-muinean bertan dauka Unamunok bihotz-ikara. Betiko hilko bagara, zertarako dena? Zertarako? Bihotzak eskatu, eta buruak ezin eman. Ez al da hau ahal denik eta ikaragarriena?

Noizbait bukatzeko gogaiak, bada, zeharo larritzen du. Baina beti-betiko bizitzeko ideiak ere ez gutxiago; eta Kierkegaardekin dio: “Noizbait hil beharra izugarria bada, are izugarriagoa litzateke behin ere ez hiltzea”. Ez du gelditu nahi, ez du iritsi nahi, ez du bakerik nahi, ez du gelditasunik nahi. Eta beldurtuta oihuka: “Ez ezazue hil denbora! Oroitzapen bihurtzen ari da etengabe gure biziera. Itxaropena da eta itxaronbidea sortzen du. Utz gaitzazue bizitzen! Betikotasuna, betirako oraintasun, oroitzapen era itxarokizunik gabe, heriotza bera da”.

Entzun diezaiogun berriz: “Minak oro itzaltzen badira, baita ahalik garbien eta gogozkoenak ere, arrangura guztiak suntsitzen badira, zerk biziartzten ditu dohatsuak? Jainkoagatik sofritzen ez badute, nola maite dezakete? Eta han lorian bertan ere, pixkanaka eta gero eta bertagotik Jainkoa badakusate, beti guztiz iritsi gabe, ezagukizunik ez badute, irrikakizunik ez badute, zalantza kondarririk ere gelditu ez bazaie, nola ez dira lokartzen?”

Ez du inora iritsi nahi; beldur da heltzeko. Eta bere filosofian halaxe gertatu zitzaion: irrika bizian idatzi zuela bizitza osoan zehar, baina helburua behin ere atxiki gabe. Bazioen berak: “Borroka da garrantzia duena eta ez garaipena”.

Batzuen ustez, halere, zaratazalea zen Unamuno eta horregatik harrotzen zituen bere larrimin eta bihotz-ikarak, hain larri sentitu ez arren.

Ez naiz ni horien aburukide. Gauza bat sinesten edo sentitzen ez denean, aise azaltzen da sasikeria, eta ondorioetan agertzen da batez ere argi eta garbi. Honengatik esaten zuen Goethek sentitzean berean idatzi behar dela, eta berak beti egin zuela horrela. Eta Unamunorekin horixe gertatu da. Eragin ikaragarria izan du gazteen artean aspaldidanik, eta orain ere badu asko, eta zerbaitengatik gertatu da hau.

Gainera, sentitu gabe esan al daiteke: “Bizitza egian eta egia bizitzan bilatzea da nire erlijioa, nahiz eta bizi naizeno aurkituko ez dudala jakin: nire erlijioa ezkutuarekin etengabe eta nekagaitz borrokatzea da; egunsentitik arratseraino Jainkoarekin borrokatzea da. Jakobek bere aroan egin zuen bezala”?

Oraindik bi zio aipatuko ditut bere alde. Unamunok berak zioen, ez zela urrea berak ematen zuen sosaren balioa, bere eskutik zeraman beroa baizik. Eta, hau aski ez balitz, Jimenez Ilundain bere adiskidearekin izandako eskutitzek agertzen dute benetako kezka zuela.

Bestetik ere, askotan gertatzen da, irakurle batek Unamunoren liburu bat hartu, eta berak sentitzen zituen gauza asko libu-

ruan ipiniak aurkitzea. Zer adierazten du honek? Gaurkotasuna dariola orain ere Unamunoren lanari. Guztiok, bai zeuok eta bai neronek ere, sarri sentitu ditugu bere larribideak: beharbada ez hark bezain biziro, baina sentitu bai. Oihartzun zaigu bere ahotsa, eta erdibitu egiten gaitu. Zergatik? Gezurrezkoa delako? Ez horixe. Ondo egiazkoa delako, guztiz gaurkoa delako hain zuzen.

Existenzialista hutsa denez gero, hemen duzue Unamuno larrimin betean sartuta. Baina larrimin hori baloratzen du, eta itxaropen-iturri bihurtu nahi du. “Oinazea da kontzientziarako bidea”. Minak pentsarazten digu, berak jartzen gaitu bidean; eta atseginak geure burutik aldentzen bagaitu, minak bihurtzen gaitu geure izanera.

Eragin gogorra du Unamunok. Bere alde hala bere aurka jarri gaitezke, baina ezin geldi inor lehen bezala: maitatu egin behar da, ala gorroto; beste hamar liburu gehiago irakurtzen dira, ala ezta lerrorik batere. Ez dago erdian geratzerik: aurrera ala atzera jo behar, eta bertatik.

Gainerakoan, existentzialista guztiek bezalaxe, ohiturakeriatik ateratzen gaitu. Irakurri ahala piztu egiten gara, beste mundu berri bat ikusita. Kanean ikusi ez dugun zerbait aurkitzen dugu harengan; Jainkoa, arima eta bizi-beharraz elizetan entzun ez ditugun gauza sarkorrak irakurtzen ditugu. Agustin deuna gogoratzen digu orain; Gide sinisgabea segituan. Zer da zorabio hau? Zer da berotasun kiskalgarri hura? Unamuno da. Nietzschek adina hunkitzen du. Kierkegaardek adina inarosten du. Liriko sakona da. Olerkari da.

Ondo daki hau guztia *Sentimendu tragikoa* edo beste edozein saio irakurri duenak: minduta uzten du irakurlea. Gizona gehiago da bihotza, arrazoia baino. Eta Unamunok bihotzari hitz egiten dionez gero, eragin bizia lortzen du.

Hemendik bere arriskua: eragile izugarria Unamuno. Hemendik ere bere birtutea: eragile aparte Unamuno.

Ni ez naiz inor Moralari buruz hitz egiteko, noski; eta alde horretatik ez dut tutik esango. Filosofiaz ere ez. Bai, ordea, bere izpiritu zaletasunaz.

Izpirituzale guztizkoa dugu Unamuno. Gure giroa berriz, gaikoaia. Futbola dela, dirua dela, negozioak direla... ez bide dago arimarik. Ez esan, arren, elizak beteta daudenik. Barkatu, baina ez dakit nik askotan zertarako joaten garen mezetara. Gaia bide dago, eta ez besterik. Noiz entzun duzue zuek kalean Jainkoaz hitz egiten? Mintzagaia bezala bai, beharbada txolar-tea aiseago pasatzeko agian; eta hau ere, segur aski, ez asko-askotan. Jainkoa, arima, biziaren adikizuna eta abar, apaizek hitz egiteko arazo bereziak bide dira. Eta ni neu ere, hau esategatik, guztiz harrigarri natzaizue guztioi. Ez al da hala? Eta, zergatik? Giro gaikoaia baino gaikoiagoa dugulako, arima eta berari dagozkion arloak gure bizimodutik at daudelako, materialista gogorak garelako.

Unamuno ez ordea. Taigabe mintzatzen zaigu gure etorkizunaz, taigabe bizitzaz eta heriotzaz, taigabe gizonari dagozkion arloez. Beraz, gure giro txar honetan, jaso egiten gaitu, gu baino gorago baitago. Eta alde honetatik, ezin uka dezake inork oso-oso egokia dela. Suspertu egiten digu bihotza, urduri utzita. Lozorro eta gezurraren bidez lortuko bada bakea, ez du ezertarako nahi; eta sasibake hau hiltzeko asmotan dio: “Bakea! Bakea! Bakea! Hala egiten dute korroka gure zingirako igel eta zapaburu guztiek”.

Hortaz, ondo dago Unamunoren liburu okerrak kondena-tzea; honela, badaki irakurleak zer arriskutan sar daitekeen irakurtzean, eta badakite nora ez jo. Baina, hori dela bide, bere liburu eta izkribu guztiak baztertzea, jokaera kaltegarria irudituko litzaidake.

Batzuetan heresea dugu Unamuno, bai. Baina, zer dira inguratzen gaituzten gaikoi amorratu horiek? Zer dira lagun hurkoarekiko maitasunaz arrastorik ez dakitenak? Eta beren etekinei baizik begiratzen ez dieten horiek, zer dira? Hereseak baino

kondenagarriagoak ez al dira kristautasunarentzat? Gaur berekoikeria nagusi dela-eta, zer ote da txarrago?

“Espainian ez dago hereserik —zioen Unamunok— federik ez dagoelako”. Eta ez al da egia?

Materialismoak josita gaude. Eta hau galdetzen dizuet: Unamuno kaltegarri izan badaiteke, zer da gure giro gaikoi nazkagarri hau?

Unamuno ezagutu duenak ez dauka ahazterik, eta alde batera hala bestera jotzen du. Astindu egiten du, gogor, eta ez dago geroztik txatxukerietan ibiltzerik. Arima-gosea isiotzen du, dirukeria hondatzen du, eta berari eskerrak aurkitu dugu askok gure burua.

Eta, hau esanda, eskuarki agintzen dizuet hau, kontuan har dezazuen: nahiago dudala nik Unamuno eragilea, bere akatsak eta guzti, behin ere kezkatu ez diren sasi-zentzudun berekoi guztiak baino.

1957-III-28

Txillardegi